

## **EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN ITZULPEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA**

### **1. KONTRATUAREN GAIA**

Lizitazio honen gaia da Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen (EGAB) itzulpen zerbitzuak kontratatzea, betiere honako agiri honetan ezartzen diren baldintzekin bat etorritz.

### **2. KONTRATUARI LOTUTAKO ZERBITZUAK**

Kontratu honen itzulpen zerbitzuak honako hauek dira: txostenak, agiriak, aktak, buletinak, argitalpenak eta EGABren bestelako barne dokumentu batzuk itzultzea gaztelaniatik euskarara eta alderantziz.

### **3. ZERBITZUAREN DESKRIPZIOA**

EGABren langileek posta elektronikoaz, faxez edo paperez igorriko dituzte itzuli edo zuzendu beharreko artxiboak, eta zerbitzuak posta elektronikoaz itzulita bidaliko dizkio artxiboa igorri dion pertsonari, betiere jasotako formatu berean.

Itzulpen enpresak itzuli beharreko testuaren formatua errespetatuko du uneoro, jasotako formatu berean bidaliz. EGABren langileek itzulpena jasotzeko epea zehaztuko du; era berean, presazkoa lana denean, halaxe adierazi beharko du.

Itzulpenek jatorrizko agirien eduki osoari eutsiko diote. Eskatutako itzulpena ez badator bat oso-osorik testuarekin, EGABko langileek zehaztu edo identifikatuko dute itzuli beharreko zatia. Itzulpen enpresak itzultitako testua txertatuko du zehaztutako testuaren ordean. Itzulpen enpresak lanak betiere igorriko ditu itzulirik, zuzendurik eta berrikusirik, akats mekanografikorik, ortografikorik, tipografikorik, linguistikorik eta estilistikorik gabe, ez eta puntuazio, formatu, itzulpen, ulermen eta aurkezpen akatsik gabe.

Itzulpenak bat etorriko dira jatorrizko dokumentuekin, euskararen edo gaztelaniaren hizkuntza eta gramatika ezaugarriek behar dituzten egokitzapenak txertatuz; halaber, itzulpen lanek diskurtso irakurgarri eta autonomoa izango dute, eta ez du emango itzulpena direnik, jatorrizko testuak baizik. Presaren inguruko kontzeptua ezin izango da inola ere erabili, itzulpen lan baten kalitate txikia justifikatzeko.

Enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du egindako itzulpenak eskatutako epearen barruan igortzeko.

Itzulpen guztiak egiteko orduan, Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak hartuko dira kontuan.

EGABk enpresa adjudikaziodunari eskatu ahal izango dio ordura arte egindako itzulpen lana emateko, nahiz eta lan hori amaitu gabe egon.

Itzultzeko agiri guztien edukiak erabilera konfidentziala izango du enpresa adjudikaziodunarentzat; gauzak horrela, itzulpen enpresak agiri horiek bakar-bakarrik erabili ahal izango ditu, EGABk agindutako lanari erantzuna emateko.

Lizitazio gaiaren zerbitzuak ezin izango dira azpikontratatu.

#### **4. LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA**

Kontratua betetzeko egindako eragiketa guzti-guztietan, adjudikaziodunak zorrotz bete behar izango du lan arloan eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legeria. Lan prebentzioaren eta arriskuen arloan indarrean dagoen arautegiak ezarritako guztia bete behar izango du, bereziki prebentzio ekintzaren printzipioei dagokiena (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 15. artikulua), langileen prestakuntzari dagokiona (19. artikulua) eta lan ekipoei eta babes baliabideei dagokiena (17. artikulua), bai eta gaiari buruzko gainerako arautegi zehatza ere.

#### **5. FAKTURAZIOA**


Adjudikaziodunak hileroko fakturatuko ditu emandako zerbitzuak, betiere eskaintako prezioarekin bat etorritik. Fakturan honako hauek zehaztuko dira: emandako zerbitzuaren kontzeptuaren araberrako itzulpenak, kontzeptu horri begira itzultako orrialde kopurua eta horren kostua.

#### **6. ADJUDIKAZIODUNAREN GIZA BALIABIDEAK ETA BITARTEKO TEKNIKOAK**

Enpresa adjudikaziodunak behar bezalako eta behar beste giza baliabide eta bitarteko tekniko izango ditu, Euskadiko EGABi beharrezko laguntza eta euskarri teknikoa eskaintzeko, betiere kontratuaren gai diren zerbitzuak zuzen eta egoki emango direla bermatze aldera.

#### **7. SEKRETUA ETA KONFIDENTZIALTASUNA**

Lizitatuzaileek eta adjudikaziodunak trataera erreserbatu eta konfidentziala emango diote informazio guztiari eta bereziki informazio pertsonalari, betiere Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoari jarraiki. Enpresa lizitatuzaileak edo adjudikaziodunak informazio hori eskura dezake Euskadiko EGABren eskutik; gauzak horrela, informazioa zainduko du eta haren menpeko pertsonalak ez du haren berri emango, baldin eta Administrazio honen idatzizko baimenik ez badago. Betebehar hori indarrean izango da kontratua amaiturik egon arren edo ezeztatua izan arren. Hori guztia, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzaldizko Errege Dekretuak ezarritakoarekin bat etorritik.



Bilbo, 2015eko azaroaren 23a  
Francisco José Huidobro Burgos  
Batzordeburua